

## ESKARIA ETA ESKAINTZA

- **Eskariaren Legea:** Inguruko gauza guztiak euren horretan mantentzen direlarik, kontsumitzaileek erosi nahi duten ondasun baten kantitatea gutxitzen da ondasun horren prezioa igotzen denean.

### ESKARIAREN TAULA

- Eskariaren taulak erakusten du zer erlazio dagoen ondasun baten prezioaren eta eskatutako kantitatearen artean.


**Ainhoaren eskariaren taula**

Izozkiaren prezioa (€)	Eskatutako kantitatea
0,00	12
0,50	10
1,00	8
1,50	6
2,00	4
2,50	2
3,00	0

### ESKARIAREN KURBA: PREZIOA ETA ESKATUTAKO KANTITATEAREN ARTEKO ERLAZIOA


- **Eskariaren kurba:** Eskariaren kurba grafiko bat da, prezioa eta eskatutako kantitatearen arteko erlazioa erakusten duena.

- **Ainhoaren eskariaren taula eta eskariaren kurba:**



### MERKATUKO ESKARIA VS NORBANAKOEN ESKARIA


- **Merkatuko eskaria:** Ondasun edo zerbitzu zehatz baten eskari indibidual guztien batura da.
- Grafikoki eskari indibidualak horizontalki batu behar dira merkatuko eskaria lortzeko.



### MUGIMENDUAK ESKARI KURBAN

- Eskatutako kantitatea aldatzea:
  - Mugimendua eskariaren kurban zehar.
  - Ondasunaren prezioaren aldaketek eraginda.


### ESKATUTAKO KANTITATEA ALDATZEA




### ESKARIAREN KURBAN ALDAKETA ERAGITEN DUTEN FAKTOREAK

- Kontsumitzaileen diru-sarrerak
- Aldaketak erlazioaturiko prezioetan
- Gustuak
- Espektatibak
- Erosle-kopurua

### ESKARIAREN KURBAREN ALDAKETA:



- Kontsumitzailearen errenta:
  - Errenta handitzen denean **ondasun arrunt** baten eskaria handitzen da.
  - Errenta handitzen denean **behe-ondasun** baten eskaria murrizten da.



### ESKARI KURBA ALDATZEA

- **Erlazionaturiko ondasunen prezioak aldatu:**
  - Ondasun baten prezioak behera egiten duenean eta, horren ondorioz, beste ondasun baten eskariak behera egiten badu, ondasun biak **ordezkoak** direla esaten da. Adibidez tea eta kafea.
  - Ondasun baten prezioak behera egiten duenean eta, horren ondorioz, beste ondasun baten eskariak gora egiten badu, ondasun biak **osagarriak** direla esaten da. Adibidez esnea eta kolakaua.

### EROSLEEN GAIN ERAGINA DUTEN FAKTOREAK

ALDAGAIA	ERAGITEN DUENA
Prezioa	Kurban zehar mugitu
Errenta	Kurba osoa mugitu
Erlazionaturiko ondasunen prezioak	Kurba osoa mugitu
Gustuak	Kurba osoa mugitu
Espektatibak	Kurba osoa mugitu
Erosleen kopurua	Kurba osoa mugitu

**ESKAINITZA** → Ekoizleen nahiak asetu.

- **Eskaintzaren Legea:** Gainontzeko gauza guztiak euren horretan mantentzen direlarik, ondasun baten eskaintzako kantitateak gora egiten du bere prezioa igotzen denean.

### ESKAINITZAREN KURBA: PREZIOA ETA ESKAINITAKO KANTITATEAREN ARTEKO ERLAZIOA


- **Eskaintzaren taula:** Ondasun baten eskaintzako kantitatea eta bere prezioaren arteko erlazioa islatzen du.

### Peioren eskaintzaren taula

Izozkiaren prezioa (€)	Eskaintako kantitatea
0,00	0
0,50	0
1,00	1
1,50	2
2,00	3
2,50	4
3,00	5

- **Eskaintzaren kurba:** Eskaintza kurba grafiko bat da, ondasun baten prezioa eta eskaintako kantitatearen arteko erlazioa islatzen duena.

#### ➤ Peioren eskaintzaren taula eta kurba:



### MERKATUKO ESKAINTZA VS ESKAINTZA INDIBIDUALA

- **Merkatuko eskaintza:** Ondasun edo zerbitzu zehatz baten eskaintza indibidual guztien batura.
- Era grafikoan eskaintza kurba indibidual guztiak horizontalki batuz lortzen da.


### ALDAKETAK ESKAINTZA KURBAN

- Input-en prezioak
- Teknologia
- Espektatibak
- Saltzaileen kopurua

### ALDAKETAK ESKAINTAKO KANTITATEAN

- Prezioa aldatzen denean agertzen da.
- Mugimendua eskaintza kurban zehar. Kurba, funtzioa ez da aldatzen


### ESKAINITAKO KANTITATEA ALDATZEA



### ESKAINTZAREN DESPLAZAMENDUA

- Eskaintzaren kurbaren lerradurak prezioaz besteko aldaketaren bat gertatuz gero agertzen dira.
- Eskaintza kurbaren desplazamenduak: eskuinalderantz edo ezkerralderantz.

### ALDAKETAK ESKAINZA KURBAN



### SALTZAILEEN GAINEAN ERAGINA DAUKATEN FAKTOREAK


ALDAGAIA	ERAGINDAKO ALDAKETAK
Prezioa	Mugimendua eskaintza kurban zehar
Input-en prezioak	Eskaintza mugitzea
Teknologia	Eskaintza mugitzea
Espektatibak	Eskaintza mugitzea
Saltzaileen kopurua	Eskaintza mugitzea

### ESKAINZA ETA ESKARIA ELKARREKIN


Eskaintako eta eskatutako kantitateak berdintzen dituen prezioaren mailan **oreka** edukiko dugu.

- **Oreka-prezioa:**
  - Eskatutako eta eskaintako kantitateak berdintzen dituen prezioa.
- **Oreka-kantitatea:**
  - Oreka-preziorako eskaini eta eskatzen den kantitatea.

➤ Eskaria eta eskaintzaren oreka:



➤ Merkatuak orekan ez daudenean:




**OREKA**

- **Gaindikina edo gehiegizko eskaintza**
  - Eskaintzaileek prezioa apalduko dute, salmentak handitzeko asmoz.
- **Urritasuna edo gehiegizko eskaria**
  - Eskaintzaileek prezioak altxatuko dituzte erosle asko ondasun urriak lortzearren lehian daudelako. Prezioak orekarako joera edukiko du.
- **Eskaintza eta eskariaren legea**
  - Edozein ondasun edo zerbitzuren prezioa beti doitu da eskatutako eta eskainitako kantitateak berdintzeko.


**HIRU URRATS OREKAREN ALDAKETAK AZTERTZEKO**

- Erabaki ea aldatetak eskaintza kurba edo eskari kurba mugitzen duen (edo biak).
- Erabaki norantz mugituko den: eskuinalderantz edo ezkeralderantz.
- Erabili eskaria eta eskaintzaren diagrama oreka-prezioa eta kantitatea nola aldatzen diren ikusteko.

➤ Eskaria handituz gero oreka nola aldatzen den:



➤ Eskaintza murriztuz gero oreka nola aldatzen den:



➤ Zer gertatzen zaie prezio eta kantitateari eskari eta eskaintza kurbak aldatzen direnean?

	Eskaintza mantendu	Eskaintza handitu	Eskaintza murriztu
Eskaria mantendu	P: Berdin Q: Berdin	P: Behera Q: Gora	P: Gora Q: Behera
Eskaria handitu	P: Gora Q: Gora	P: ??? Q: Gora	P: Gora Q: ???
Eskaria murriztu	P: Behera Q: Behera	P: Behera Q: ???	P: ??? Q: Behera

## **LABURPENA**

- Ekonomilariak eskaintza eta eskariaren eredia konkurrentziako merkatuak analizatzeko erabiltzen dute.
- Konkurrentziako merkatuetan erosle eta saltzaile asko daude eta guztiak oso txikiak dira; ez dute eraginik prezioan.
- Eskariaren kurbak honakoa islatzen du: ondasun baten eskatutako kantitatea bere prezioaren menpe dagoela.
  - Eskariaren legearen arabera, ondasun baten prezioak behera egiten badu eskatutako kantitateak gora egingo du. Beraz, eskariaren kurba beherakorra da.
  - Prezioaz gain badaude beste faktore batzuk kontsumitzaileek nahi duten kantitatearen gain eragina daukatenak, hala nola, ordezko eta osagarrien prezioak, gustuak, espektatibak eta erosleen kopurua.
  - Faktore haietarik bat aldatzen bada eskaria aldatzen da.
- Eskaintzaren kurbak honakoa islatzen du: ondasun baten eskaintako kantitatea bere prezioaren menpe dagoela.
  - Eskaintzaren legearen arabera, ondasun baten prezioak gora egiten badu eskaintako kantitateak gora egingo du. Beraz, eskaintzaren kurba gorakorra da.
  - Prezioaz gain badaude beste faktore batzuk ekoizleek produzitu nahi duten kantitatearen gain eragina daukatenak, hala nola, input-en prezioak, teknologia, espektatibak eta saltzaileen kopurua.
  - Faktore haietako bat aldatzen bada eskaintza aldatzen da.
- Merkatuaren oreka eskaintza eta eskari kurben intersekzioak zehazten du.
- Orekan eskatutako eta eskaintako kantitateak berdinak dira.
- Erosle eta saltzaileen portaerak merkatua berez orekara eramaten du.
- Gertaera batek merkatu batean zer eragin duen analizatzeko eskaria-eta-eskaintzaren diagrama erabiltzen dugu, oreka prezioa eta kantitatea nola aldatzen diren jakiteko.
- Merkatu ekonomietan prezioak seinaleak dira, erabaki ekonomikoak gidatzen dituztenak eta, beraz, baliabideak esleitu.